

ALKATE DEKRETUA

Nafarroa Oinez 2025 ekintza burutzeko, NAFARROA OINEZ FUNDAZIOAK (G71302871), Ibarra Udalarik dirulaguntza eskaera luzatu zion 2025eko urtarrilaren 24an egindako eskaeraren bidez (erregistro zenbakia 2025-444).

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, Nafarroan euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen du ekintza horrek.

Ibarra Udala bat dator Nafarroa Oinez ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra Udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Nafarroa Oinez.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Nafarroan ez dagoelako euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen duen beste festarik, eta ondorioz, bera bakarra dela.

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.01 diru-partida.

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikularen, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikularen eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikularen arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Diruz laguntzea euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen duen Nafarroa Oinez 2025 proiektua.

BIGARRENA. Aipatu dirulaguntza 800 €koa izango da eta Nafarroa Oinez 2025 egitasmoa antolatzen duen Nafarroa Oinez Fundazioari (G71302871) ordainduko zaio ES78 3035 0087 0408 7007 4866 kontu korrontean.

HIRUGARRENA. Aipatu kopurua 2025ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.01 2025 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da.

SEIGARRENA.- Egindako diru-ekarpena justifikatzeko, Nafarroa Oinez 2025 ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2026ko urtarrilaren 31a baino lehen:

- Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.
- Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen honen berri udalbatzari ematea egiten duen hurrengo lehen osoko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

Nekane Lazkano Prieto

Alkateordea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025WDIZ0004-Dekretua_OR/Decreto_GE (NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA)